

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernua elkarlean ari da NUPeko ikasleek garapenerako laguntzako proiektuetan praktikak egin ditzaten

*Torres kontseilariak eta Lafuente errektoreak finantzazio hitzarmena sinatu dute gaur goizean*

Jueves, 15 de septiembre de 2011

Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleek ikasketen amaierako proiektuak edo praktikak egin ahal izango dituzte, lankidetzarako GGKE, elkarte eta/edo nazioarteko agentziek buruturiko garapenerako laguntzako proiektuetan sartuta. Proiektu horiek lekuko unibertsitatearen bati nolabait lotuta egongo dira.

Horretarako, Elena Torres Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria kontseilariak,

Nafarroako Gobernuaren izenean, eta Julio Lafuente Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak, unibertsitatearen izenean, hitzarmen bat sinatu dute. Horren bidez bi instituzioek konpromisoa hartu dute "Formación Solidaria" garapenerako laguntzako proiektua batera finantzatzeko. Proiektuak hezkuntza eta sentsibilizazio ekintzak bateratzen ditu lankidetzaren tekniko beste batzuekin.

Nafarroako Gobernuak 89.610 euro emango ditu diru-laguntza gisa 194.567 euroren aurrekontu osotik. Gainerakoa NUPen kontura izango da.

Programari esker, garapen bidean diren herrialdeetako hainbat unibertsitate indartzen dira, alde batetik, eta, bestetik, NUPeko unibertsitateko komunitateak garapenerako nazioarteko lankidetzaren esku hartzea eragiten du.

2010-2011 ikasturterako NUPeko ikasleentzat "Formación Solidaria" proiektuko 35 beken deialdia egingo da. Beka eskuratzeko garapenerako nazioarteko laguntzan oinarritzko trebakuntzako ikastaro bat egin behar da. Bekadunak hitzarmen hau sinatu eta beka babesten duten bi instituzioek erabakiko dituzte batera.

Bestalde, proiektuak herrialde kideetako unibertsitateetako irakasle eta ikasleentzako eta programaren aukako alderdietako teknikarientzako trebakuntza eta ikerketa bekak ere baditu. Bekak lortzen dituzten NUPeko



Torres kontseilaria eta Lafuente errektorea "Formación Solidaria" izeneko garapenerako laguntzako proiektua finantzatzeko hitzarmena sinatzen

ikasleek, bestalde, Kuba, Peru, Ekuador, El Salvador, Bolivia eta Mozambikeko [proiektuak](#) burutzerara joango dira. Proiektu horien edukiak aholkularitza juridiko solidarioa, sistema informatikoen diseinua eta ekoizpena, landako haurren hezkuntza, fisioterapia, gizartearentzako enpresa txikiak sortzea, hezkuntzarako materiala sortzea, ama-haurren arreta kirurgikoaren jarduna eta osasuna, energia berriztagarriak, ardoaren ekoizpena edo industriaren segurtasuna eta antolaketa bezalako arlo ezberdinei buruzkoak dira.

Gainera, NUPen programan parte hartzen duten herrialde kideetako unibertsitateetako irakasleak hartzea aurreikusi da, haien jatorriko fakultateetan egindako ikerketekin loturiko alderdi zehatzak sakontzeko, haien unibertsitatean irakasteko kontu espezifikoetan trebatzeko edo haien ezagutza alorrarekin loturiko mintegi, modulu edo jardunaldietara joateko. 2011rako irakasle horietatik 12ren bisita aurreikusi da, eta bi eta hamar hilabete arteko egonaldiak egingo dituzte.